

Informazio saioak Hezkuntzako master, gradu modalitate erdi-presentzian eta aditu tituluei buruzkoak, ekainaren 15ean, Eskoriatza eta Aretxabaletako campusetan

2017/06/06

Ekainaren 15ean, osteguna, informazio saioak egingo dira Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatean argibideak emateko hezkuntzako Master, Gradu modalitate erdi-presentzian eta zenbait Aditu Tituluengainean. Ikasketaren arabera, informazio saio horiek izango dira Eskoriatzako edo Aretxabaletako campusean, 18:00etan edo 18:30etan hasita. Informazio saioak irekiak dira baina, interesatuek aldeztu aurretik eman beharko dute izena interneten.

Izen-ematea: Informazio saioetan izena eman hemen.

Eskoriatzako campusean

Unibertsitate masterrak Hezkuntzan (Ordua: 18:00)

- Berrikuntza Didaktiko-metodologikoko Proiektuen Garapena eta Kudeaketa Hezkuntza Erakundeetan Unibertsitate Masterra (Berrimet).
- Hezkuntza Testuinguru Multikultural eta Eleaniztunetan Unibertsitate Masterra (Ekomu).
- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, Batxilergoan, Lanbide Heziketan eta Hizkuntzen Irakaskuntzan irakasle gisa aritzeko gaitzen duen Unibertsitate Masterra.

Aditu tituluak (Ordua: 18:30)

- Kirol-hezkuntzaren Berrikuntzan Aditu Titulua.

Aretxabaletako campusean

Hezkuntza Graduak modalitate erdi-presentzian (Ordua: 18:00)

- Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan bigarren gradu bat edo bigarren aipamen bat.
- Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza graduak online.
- Egokitze Kurtsoak pasatzeko Hezkuntza Diplomaturatik gradura.

Aditu tituluak (Ordua: 18:30)

- Komunikazioa Erakundeetan Aditu Titulua.



Eskoriatzako eta Aretxabaletako campusetan izango dira informazio saioak.